


udaltop

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK**



IZENBURUA:

Nola arautu dezakegu euskararen erabilera udaletan itzulpenak ito ez gaitzan?

EGILEA:

Begoña Garmendia

DATA:

2015/04/29

Aurkibidea

Gaian sartu aurretik.....	3
Toki-administrazioen jardueraren adierazleak: espedientea.....	4
Espediente-motak eta euskararen erabilera.....	12
Udalen jarduera eta udal legearen proiektu.....	20



1. Gaian sartu aurretik

Lehenik eta behin, idazlan honen ikuspuntua oroz gain praktikoa izango dela argitu behar dut. Irakurtzen duenak ez du inolako tesi doktorala aurkituko, ezta etengabeko lege-aipamenik ere, Idazkari honek 27 urteetako eskarmentuaren ondoren azaldu eta konpartitu nahi dituen hausnarketak baizik, denak gai berberaren inguruan: Nola demontre txertatu (eta bermatu) euskararen erabilera normalizatua gure ohiko lan jardunean, eta, horrekin batera, herritarrek hurbilekoena sentitzen duten administrazioan, udalean.

Era guztietan, nire aburuz ezinbestekoak diren araudiak azalduko ditut, eta horiekin batera saiatuko naiz interpretazio-irizpideak eskaintzea. Azken finean gure lanbidea toki-administrazioa arautzen dituen lege eta gainontzeko xedapenen interpretazio eta aplikazioan oinarritzen baita, egunero aurkezten zaizkigun arazoei irtenbideak emanez, edo hori saiatuz behintzat.

Beraz, txosten hau udal eta gainerako toki izaerako erakundeetako teknikariok bizitzen dugun errealitatearen inguruan murgilduko da, gure lanaren xedea diren espedienteak, kontsultak, txostenak, eta, orokorrean, udaletako jarduerak aztertuz, hori dena euskararen erabilera normalizatua eta konplexurik gabekoa, bermatzeko helburuarekin.

Azterketa hau egiteko udalen jarduera ezberdinak sailkatu ditut, haien hartzaile edo interesatua kontutan hartuta:

- 1 Jardueraren hartzailea udalaren barruko subjektua denean. Hemen, berezi behar dira, berriz, udalaren Departamentu administratiboak eta estruktura politikoko kideak
- 2 Jardueraren hartzailea udalez kanpokoa denean, berezi behar dira:
 - 2.1 Hartzailea, Euskadiko Autonomia Erkidegoan kokaturiko Administrazioa bada
 - 2.2 Hartzailea EAEtik kanpoko administrazioa bada
 - 2.3 Hartzailea izaera pribatuko pertsona bada
 - 2.4 Hartzaileak zehaztu gabeko herritar orok direnean

Bestaldetik, espedienteen hasiera-mota ezberdinak hartu ditut kontuan, batzuetan eta besteetan hainbat neurri praktikoa har daitezkeelako gure hizkuntzaren erabilera bermatzeko.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak onarturiko Udal Legearen Proiektuaren hainbat xedapen aztertuko ditut, gai honen inguruan izan dezaketen eragina kontutan harturik.



2. Toki-administrazioen jardueraren adierazleak: espedienteak

2.1. Zer da espediente bat?

Administrazio batek bere jarduera nagusia espedienteen bitartez garatzen du. Toki administrazioaren kasuan, espedientearen kontzeptua Toki-Korporazioen Antolakuntza, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoa arautzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege-Dekretuaren 164. artikulua xedatzen du: *1. Constituye expediente el conjunto ordenado de documentos y actuaciones que sirven de antecedente y fundamento a la resolución administrativa, así como las diligencias encaminadas a ejecutarla.*

Halaber, espedienteen osaketa artikulua honen 2. atalak arautzen du:

2. Los expedientes se formarán mediante la agregación sucesiva de cuantos documentos, pruebas, dictámenes, decretos, acuerdos, notificaciones y demás diligencias deban integrarlos, y sus hojas útiles serán rubricadas y foliadas por los funcionarios encargados de su tramitación.

Era honetan, espediente batek gutxienez honako hauek jaso beharko ditu:

- a) Espedienteari hasiera emateko agindua, horretarako ahalmena duen udal organoak izenpetuta, bere kabuz edo subjektu partikular baten eskaeraren ondoren.
- b) Dagokion erabakia hartu aurretiko eginbideak: frogak, txostenak (teknikoa, juridikoa, ekonomikoa edo fiskalizatzailea), aurretiazko ebazpenak, etab.
- c) Erabakia, ahalmena duen organoak hartuta.
- d) Hartu den erabakiaren exekuzioa gauzatzeko beharrezkoak diren gainontzeko eginbideak: ziurtagiria, jakinarazpenak, iragarkiak bere kasuan....

Kontzeptu hauek erabat oinarrizkoak dira, baina ezinbesteko abiapuntuak dira ondorengo azalpenak egin aurretik. Garrantzitsua da garbi uztea espedientea dela udal eta, orokorrean, toki administrazio guztien jardueraren tresna nagusia: dena espedienteen bidez gauzatu behar da eta dena jasota gelditu behar da espedienteetan. Irakasle baten esaten ohi zuen bezala, *expedienteetan ez dagoena ez dago munduan*. Udal administrazioetan, halaxe da behintzat.

2.2. Espedienteen hizkuntza. Lege-irizpide orokorrak

2.2.1. Estatuko legeak



1º.- Espedienteen hizkuntza erregulatzeko duen oinarriko Estatu-legea, Herri Administrazioetako Araubide Juridikoa eta Administrazio-Prozedura Erkidea arautzen dituen azaroaren 26ko 30/1992 Legea da, ondorengo xedapenetan:

- 35. artikulua, administrazio publikoekin dituzten harremanetan herritarren eskubideak arautzen ditu, horien artean, tokiko Administrazio Erkidearen hizkuntza ofiziala erabiltzearena, beti ere dagokion lurralde-eremuan, eta 30/1992 zein gainontzeko ordenamendu juridikoarekin bat etorriz.
- 36. artikulua, Estatuko Administrazio Orokorraren prozeduren hizkuntza arautu ondoren, Autonomia Erkidego eta tokiko administrazioetako jardunbideena arautzen du: **2. Autonomia-erkidegoetako eta tokiko erakundeetako administrazioek izapidetutako prozeduretan, kasuan kasuko autonomia-legedian ezarritakoari lotuko zaio hizkuntzaren erabilera.**
- Horrekin batera, 3. atalak ondoko hau xedatzen du: **3. Herri-administrazio instrukzio-egileak gaztelaniara itzuli behar ditu agiriak, espedienteak edo horien atalak, autonomia-erkidegoko lurraldetik kanpo ondoriorik izan behar badute, eta interesdunei zuzendutakoak, espresuki hala eskatzen badute. Ez dago itzuli beharrik, gaztelania ez den beste hizkuntza ere ofiziala bada ondorioak izan behar dituzten autonomia-erkidegoan.**

2º Udalen kasuan, Toki-Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoa arautzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege-Dekretuak ondoko xedapen jasotzen ditu:

- 86. artikulua, plenoetako espedienteak arautzen ditu, 86. artikuluan: **Artículo 86. 1. Las convocatorias de las sesiones, los órdenes del día, mociones, votos particulares, propuestas de acuerdo y dictámenes de las Comisiones informativas se redactarán en lengua castellana o en la lengua cooficial en la Comunidad Autónoma a la que pertenezca la entidad, conforme a la legislación aplicable y a los acuerdos adoptados al respecto por la correspondiente Corporación....Se redactarán, asimismo, en la lengua cooficial en la Comunidad Autónoma a la que pertenezca la Corporación cuando así lo exija la legislación de la Comunidad Autónoma o lo acuerde la Corporación.**
- **2. En los debates podrán utilizarse, indistintamente, la lengua castellana o la cooficial de la Comunidad Autónoma respectiva.**
- Aktei dagokienez, 110. artikulua 1. atalak ondoko hau xedatzen du: **1. Será aplicable a la redacción de las actas lo dispuesto en el artículo 86.1, en cuanto a la utilización de las lenguas**
- Azkenik, akten transkripzioa honako era honetan burutuko da, 201. artikuluan xedatutakoaren arabera: *Las actas y resoluciones redactadas en versión bilingüe se transcribirán a los libros correspondientes mediante el sistema de doble columna, una para cada lengua, a fin de facilitar su cotejo y uso.*

Beraz, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren kasuan, Pleno eta Batzorde Informatiboetako deialdiak jasotzen dituzten espedienteen dokumentazioa (deialdia, gai-zerrenda, jakinarazpenak, aktak, diktamenak...) euskaraz bakarrik idatzi ahal izango da, Administrazio Erkidegoaren legeriak hori xedatzen badu, eta dagokion toki-entitateak hori erabakiko



balu. Hala ere, irizpide orokor honek mugak ditu, eta praktikara eramatea ez da hain erraza, geroago ikusiko dugun moduan.

Hala ere, gai honi buruz bereziki interesgarria da Epaimahai Gorenak 2000ko irailaren 25ean emandako sententzia. Gai honi buruz ondoko hau ebatzi zuen: OCTAVO. *La normativa estatal en materia de régimen local no impide el uso del gallego por las entidades locales en los términos expuestos. El Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de dichos entes, aprobado por Real Decreto 268/1986, de 28 Nov., en su artículo 86.1 se remite a la normativa autonómica y a los acuerdos de los entes locales, al establecer la lengua en la que han de estar redactados la convocatoria de sesiones, los ordenes del día, las mociones, los votos particulares, las proposiciones de acuerdos, los dictámenes de las Comisiones informativas y las actas, mientras que el apartado 2 del propio precepto, en aras del respeto a los derechos subjetivos de los representantes locales que deriva del régimen de cooficialidad lingüística, establece la utilización indistinta de las lenguas oficiales en los debates. Y, siguiendo el precedente que representa la Ley del Parlamento de Galicia, Ley 5/1988, de 21 Jun., sobre uso del gallego como lengua oficial por entidades locales a que se refiere la sentencia de instancia, la Ley de Administración Local de Galicia, Ley 5/1997, de 22 Jul., después de reiterar que el gallego, como lengua propia de Galicia, lo es también de su Administración local, reproduce tanto la exigencia de redacción en lengua gallega de las referidas actuaciones como la posibilidad de hacerlo, además, en la otra lengua oficial, el castellano, que ha de entenderse deber, como antes se dijo, si concurre alguno de los derechos lingüísticos de un ciudadano o de un representante local en los términos antes expuestos.*

Hemen ikusten dugunez, Galiziako Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen berariazko legeriaren xedapenak oinarri gisa hartu ditu Epaimahai Gorenak, ondoko hauek ebazteko:

- Pleno eta Batzorde Informatiboetako dokumentazioa galegoz idaztea bat datorrela araubide juridikoarekin.
- Udal organoen eztabaidatan edozein hizkuntza ofiziala erabili daitekeela.
- Dokumentazio hau gazteleraz idaztea ahalezkoa dela.
- Aukera hau betebeharra bihurtzen dela herritar baten edo korporazioko kide baten hizkuntza eskubideak gauzatu behar direnean.

Epai berdinean, Goi mailako tribunal honek Autonomia Erkidegoaren berariazko hizkuntza ofizialari lehentasunezko tratamendua ematea onartu zuen, berariazko legerian horrela onartuko balitz, eta udalak hala erabakiko balu: *En segundo término, corresponde al legislador autonómico, al Parlamento de Galicia, la competencia lingüística, de acuerdo con el artículo 5.3 EAG que atribuye a los poderes públicos gallegos la garantía del uso normal y oficial de los idiomas [castellano, como idioma oficial en todo el Estado, y gallego, como lengua propia del Galicia] y la potenciación del uso del gallego en todos los órdenes de la vida pública, además de en la vida cultural e informativa. y dentro de esta habilitación/mandato, con una clara orientación teleológica encaminada a la «normalización lingüística», caben distintas opciones encaminadas a asegurar el respeto y fomentar el uso*



*de la lengua propia de la Comunidad Autónoma y cooficial en ésta, según ha reconocido la STC 337/1994, de 23 Dic. De esta manera **cabe que por ley autonómica resulte un uso prioritario del gallego**, siempre que se respeten los límites que representa el modelo lingüístico constitucional, a que se ha hecho referencia, y, por tanto, el derecho de todo ciudadano a usar el castellano tanto en sus relaciones con los poderes públicos- incluyendo la facultad de solicitar traducción al castellano cuando se alegue incomprensión del gallego-, como en su participación, en condiciones de igualdad, en los asuntos y funciones públicas (art. 23 CE). Debe, en suma, tenerse en cuenta que el artículo 3.2 CE al instaurar la cooficialidad de las respectivas lenguas españolas en determinadas Comunidades Autónomas tiene consecuencias para todos los poderes públicos en dichas Comunidades, y, de forma destacada, el derecho de los ciudadanos a usar cualquiera de las dos lenguas ante cualquier Administración en la Comunidad respectiva con plena eficacia jurídica.*

***En consecuencia, es constitucionalmente posible que la legislación autonómica incorpore un uso preferente de la lengua gallega en las Administraciones Públicas, de la propia Comunidad Autónoma y de las Entidades locales gallegas**, que se traduce, en lo que aquí importa en que éstas actúen de acuerdo con lo dispuesto en la LNLG (art. 6.4), y que no ofrezca dudas de constitucionalidad, siempre que sea interpretada ex constitutione según los límites expuestos, la disposición legal, que reproduce la sentencia recurrida, establecida en el artículo 1 de la Ley del Parlamento.*

Epaiak, Autonomia Erkidegoaren berriazko hizkuntzaren lehenetsunezko erabilera arautzeko ahalmena onartu ondoren, ondorengo mugak xedatzen ditu:

- Administrazioarekin harremanetan gaztelania erabiltzeko herritarren eskubidea.
- Herri-gaietan parte hartzeko gaztelania erabiltzeko eskubidea, zera, parte hartze politikoa gauzatzekoan gaztelania erabiltzeko eskubidea.
- Eskubide hauek bermatzearen, sententziak ondoko aukera ematen du: herritar edo zinegotziek eskubidea dutela galegoz dagoen dokumentazioaren itzulpena eskatzeko; era berean, Administrazioak onartu behar dituela gaztelaniaz aurkezturiko idatziak. Beraz, epaiak ez du xedatzen espedienteak derrigorrez elebitan osatzeko inolako betebeharririk, aldiz, interesatu hauen eskubideak eskaturiko dokumentuen itzulpenen bidez berma daitezke.

3º Hala ere, ezin da ahaztu oraindik ez dela espresuki indargabetu maiatzaren 10eko 1111/1979 Errege Dekretua, Toki-Korporazioetan Espainiar hizkuntz ezberdinen erabilera arautzen duena. Dekretu honen 1. artikuluan, gaztelania eta gainontzeko hizkuntza ofizialen aldi baterako erabilera onartu ondoren, 2. artikulua gaztelaniaz nahitaezko izaeraz gauzatu behar diren izapideen zerrenda aipatzen du, honakoaren arabera:

- **A)** Las comunicaciones, notificaciones y, en general, toda clase de escritos dirigidos a autoridades y Organismos estatales, a Juzgados y Tribunales y los referentes a reclutamiento y reemplazo, así como en los que se dirijan a autoridades y Organismos oficiales no pertenecientes a la comunidad bilingüe.
- **B)** Los anuncios, edictos o resoluciones que hayan de publicarse en el «Boletín Oficial del Estado».



Horretaz gain, 3. artikulua xedapenak gaztelaniaren ezinbesteko erabilera eta dagokion lurraldearen berariazko hizkuntzaren aukerazko erabilera xedatzen du toki-entitateen jardueran guztietan.

Bitxikeria moduan, hona hemen 5. artikuluan xedatzen dena, organo kolegiatueta eztatutako arautzeko: ***En los debates de los Organos Colegiados de las Entidades Locales, podrán utilizarse indistintamente la lengua castellana o la usual en el territorio de la respectiva Corporación. Quien utilizare esta última estará obligado, a petición de cualquier miembro de la Corporación o del Secretario fedatario, a resumir en castellano su intervención, en los extremos que se soliciten o en los que se acuerde consten en acta.***

Lehen aipatu dudana moduan, xedapen hauek ez dira espresuki indargabetu, segurtasun-gabeziko egoeran sartzen gaituztelarik, batez ere garai hauetan.

2.2.2. Euskadiko autonomia erkidegoaren legeetan xedaturiko irizpideak

1º. Lehenik eta behin, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 6. artikulua euskararen ofizialtasuna aldarrikatzeaz gain, Euskal Herriaren berezko hizkuntza gisa hartzen du euskara: ***1.- Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera, eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. 2.- Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera sozio linguistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, berorien ofizialtasuna erregulatuz, eta berorien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte.***

2º. Azaroaren 24ko Euskararen erabilera normalizatzeko oinarriko 10/1982 Legearen 2. eta 3. artikuluek Autonomia Estatutuak xedaturiko printzipio berdinak aitortzen dituzte. Ondoren, Lehenengo Tituluak hizkuntzaren alorrean herri-tarren eskubideak eta herri-aginteen betebeharrak arautzen ditu, horien artean:

- Euskadiko Autonomia Erkidegoan ofizialak diren hizkuntzak jakiteko eta bertan kokaturiko edozein Administrazioarekin erabili eta harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko herritar guztien eskubidea aitortzen da.
- Herri-aginteez eskubide hauek bermatu behar dituzte, errealak izan daitezkeen

Bigarren Tituluaren Lehen Kapituluak, Euskararen erabilera herri-administrazioetan arautzen du, beti ere Autonomia Erkidegoaren lur-eremuan, ondoko printzipioen arabera, beste batzuen artean:

- Herritarrei dagokie nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzea, eta horretarako administrazioek neurri egokiak hartu behar dituzte.
- Interesatuen arteko desadostasunak ebazteko eta erregistroen funtzionamendurako irizpideak arautzen dira.



- Arau-xedapenak eta gainontzeko egintza eta jakinarazpenak bi hizkuntzetan idatzi eta zabaldu behar dira. Estatuko legeei dagokienez, printzipio hori gauzatzeko dagokion lankidetzaren hitzarmena izenpetu zuten bi gobernuek, **2011ko urtean**.
- Eusko Jaurlaritzak itzultzaile zerbitzu ofiziala sortuko du, herritarren eta entitate publikoentzat lan egingo duena.

3º. Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, EAeko Herri Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena., herritarrek administrazioekin euskaraz jarduteko duten eskubidea garatzea du xedea, herri-administrazioetan hartu behar diren neurriak zehaztuz. Dekretu honetan, ondoko neurri nagusiak arautzen dira:

- EAeko Herri-Administrazioetako pertsonalaren hizkuntza-eskakizunak: definizioa, sailkapena, derrigortasun-datak, salbuespenak...
- Administrazio bakoitzean eta epe bakoitzean derrigorrez bete beharreko indizeak, hizkuntza-eskakizuna ezarria duten lanpostuena (euskaldunak + ia euskaldunak/2 gutxienez).
- Administrazio-atalak sailkatzeko irizpideak: elebidunak eta euskarazkoak (azken hauek erakundeak bete beharreko indizea %70etik %100era bitartekoa denean derrigorrezkoak izango dira).
- Dagokion administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko planak, 5 urteko iraupena izango dutenak.

2.2.3. Ondorioak

Aipatu den legeria kontutan harturik, Toki-administrazioetako erakundeek ahalmena dutela gauzaten dituzten jardunbideen hizkuntza ofiziala aukeratzeko ondoriozta genezake. Beraz, prozedura horietan euskarari lehentasuna eman ahal diezaiozte. Hala ere, **ahalmen honek mugak ditu:**

- Araubide juridikoari dagokiona: Autonomia Erkidegoaren legeria, udal korporazioaren akordioak, eta toki-entitateen eskumenak.
- Ereku fisikoari dagokiona: autonomia erkidegoaren lurralde-esparrua.
- Partaidetza politikoaren eskubide konstituzionalari dagokiona: Korporazioko kideen eskubidea, nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko bere jardueran politikoan, hots, udaletik jasotzen duten dokumentazioan eta bertan aurkezten dituzten idatzietan.
- Herritar orok hizkuntza ofiziala aukeratzeko duten eskubidea (Estatutuaren 6.1 artikulua).

2.3 Protagonistak ez desiratuak: auzitegiak

Hala ere, aurreko atalean aztertutako lege-irizpideek duten mugarik handiena epaitegien jardueratik dator. Horrela, euskararen normalizazioaren gaia etengabe irteten ari da administrazioaren edo herritarren eremuetatik, gaztelania-



ren presentzia nagusia inposatu nahi dutenek sustatzen dituzten auzi-jardunbideen ondorioz. Hona hemen bi adibide ezberdin, euskararen erabilera arautzen duten bi Ordenantzei buruzkoak: Uharte Arakil eta Azpeitiko udalek onartutako Ordenantzen inguruan izandako epaiak.

2.3.1. Nafarroako administrazioarekiko auzitegiak 2014ko maiatzaren 21eko epaia

Kasu honetan, ondoko adierazpenak egin zituen Epaimahaiak, Epaimahai Gorenak 2000eko irailaren 25ean emandako sententzia jarraituz: **SEGUNDO.-** *Respecto al artículo 3 de la ordenanza defiende que ha infringido los artículos 7 y 8 del Decreto Foral de referencia. Señala el precepto impugnado lo siguiente: “Los actos administrativos de carácter interno se realizarán **en euskera o en bilingüe, dando prioridad en todo lo posible al euskera y siempre que sea posible en euskera**”. El recurrente no aduce ningún razonamiento que podamos examinar, pues se limita a citar los preceptos, por lo que le recordaremos que el artículo 8 del Decreto Foral señala:*

.....

*Obsérvese que el reglamento solo exige (apartado 2) la redacción en bilingüe cuando se trate de actuaciones cuyo conocimiento deba ser notificado a otras personas físicas o jurídicas, por lo que, **en principio no hay problema en que los actos meramente internos que no deban comunicarse a terceros puedan dictarse en euskera**, precisamente el apartado 1 del precepto aduce que serán válidas y tendrán plena eficacia las actuaciones administrativas cualquiera que sea la lengua oficial empleada, de ahí que no veamos la ilegalidad de la Ordenanza en este aspecto.*

.....

*Concluíamos que era procedente el uso tanto del castellano como del vascuence en las actividades internas de los órganos municipales y **a éstos correspondía la opción sobre cuándo utilizar una u otra lengua o las dos conjuntamente**. Por ello, entendemos que el artículo 3 de la ordenanza no es contrario a las normas superiores, pues éstas prevén la posibilidad de que se desarrollen actuaciones internas en un solo idioma o en los dos de forma simultánea, siempre evidentemente que esas normas sean respetadas en cada caso concreto donde se exija el uso del castellano o un tratamiento bilingüe, y sin perjuicio del derecho de los miembros de la corporación municipal a expresarse y a recibir comunicaciones en la lengua oficial que elijan y de la obligación municipal, en su caso, de **proveer cuando sea necesario los adecuados medios de traducción o de interpretación simultánea** para atender el derecho de sus miembros a utilizar cualquiera de las lenguas cooficiales y a recibir toda la información en un idioma que comprendan, y también sin perjuicio del derecho que tiene cualquier interesado, en aplicación de lo que disponen los artículos 10 y 11 de la Ley Foral del Vascuence, a usar tanto el vascuence como el castellano en sus relaciones con las Administraciones Públicas y a ser atendidos en la lengua oficial que elijan, por lo cual el Ayuntamiento **deberá adoptar la medidas oportunas en cuanto a la traducción de documentos redactados en una u otra lengua** a efectos de su notificación o entrega a los interesados.*



Epai honek onartzen du, bestaldetik, udalaren programa informatikoak edota udalak kontratatuturiko proiektu eta gaintzako lanak **euskarazkoak edo elebidunak** izatea.

Sententziak, aldiz, Ordenantzaren hainbat artikuluen erabateko baliogabetasuna aitortu zuen, adibidez, herritarrei eskainitako inprimaki ofizialak euskarazkoak edo elebidunak izateko aukera xedatzen zuena.

2.3.2. EAEko epaimahai gorenak 2007ko otsailaren 12ko sententzia (epaimahai gorenak berretsia)

Sententzia honek, Euskararen erabilera arautzeko Azpeitiko udalak onaturiko Ordenantza erabat baliogabetzat hartu zuen, ondoko hauetan oinarriturik:

- Udalaren **eskumen edo ahalmen eza** euskaratzen erabilera arautzeko udalerrian, eskumen hori Autonomia Erkidegoarena delako: *Como dijo esta misma Sala, en reciente S 21 Sep. 1998 , la normalización lingüística de un idioma cooficial entra en el ámbito o esfera de intereses de la Comunidad Local, pero excede de ella para afectar, de modo prioritario, a los de la Comunidad Autónoma, por lo que no puede invocarse la capacidad de los Entes Locales para la promoción de los intereses propios de la colectividad municipal. No es que no se reconozca legalmente una competencia municipal para la normalización lingüística del Euskera, sino que tal competencia está atribuida a la Comunidad Autónoma.*
- Euskararen erabilera lehenestea udalaren jardueretan koofizialtasunaren aurkakotzat hartzen du: *“...no se trata sino de una finalidad contraria a la realmente pretendida; así, se expone que el Castellano y el Euskera, como lenguas cooficiales, tienen plena eficacia en todas las relaciones, que la Ordenanza se centra en el Euskera (lógicamente porque carece de atribución alguna para regular el Castellano) porque se trata de lograr su normalización, su uso real en todas las relaciones de los ciudadanos; aparece así la finalidad expansiva, absoluta, excluyente del uso del Español que realmente se pretende,se dice también que se trata de una actividad destinada a la promoción preferente del Euskera al considerarlo como la lengua propia del ayuntamiento (se ignora así el contenido del art. 3 de la CE que establece que son ambas las lenguas oficiales y no una de ellas nada más), lo que muestra que se está orillando, que el fin perseguido lleva consigo orillar, privar al Castellano del plano de igualdad que le corresponde con arreglo, como veremos, al art. 3 de la Constitución , y deja patente, como veníamos diciendo, que la igualdad del Español que la Ordenanza reconoce no es sino mera retórica sin contenido real, efectivo, alguno, es decir, tal igualdad es aparente nada más porque la realidad va a ser que el Castellano no va a contar con garantía real de utilización equivalente a la del Euskera.* Hemen gogoratu behar da Euskadiko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, euskara, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofiziala dela, baino horretaz gain, Euskal Herriaren **berariazko hizkuntza euskara** dela. Xedapen berdinak jasotzen ditu Euskararen Legeak. Dirudienez, arau horiek ahaztu zaizkio Epaimahai Gorenari kasu honetan.
- Azpeitiko herritarren %90a euskalduna izan arren, Epaimahaiak ez du onartzen udal lanpostu guztiek derri-gorrezko hizkuntza-eskakizuna izatea: *En primer lugar, ya vimos que la Ordenanza impone que todos y cada uno de los puestos de trabajo propios o vinculados con la demandada deban contar con perfil lingüístico*



*obligatorio para que toda la actividad se desarrolle en esta lengua; tal proceder conculca las previsiones de los arts. 3 de la CE, leyes sobre función pública estatales (30-1984) y autonómicas (6-1989), ley autonómica 10-1982 sobre normalización del uso del Euskera y doctrina constitucional sobre la materia (contenida, v gr, en la Sentencia 253-2005, por citar una de las más recientes); conforme a todo ello **los puestos de trabajo deben garantizar la cooficialidad de ambas lenguas y por eso no todos deben contar con perfil lingüístico obligatorio ni cabe exigir tampoco que toda la actividad se desarrolle en la lengua de la comunidad autónoma sino que tal obligatoriedad debe acomodarse a aquellos puestos en los que el tipo, nivel y función lo exija.***

- Azkenik, Epaimahaiak ezetsi zituen udalaren ordezkariak aurkeztu zizkion adibide guztiak, autosufizientzia-puntuera erakutsiz: beste udalerrietako Ordenantzak, Kataluniako Epaimahai Gorenaren Sententziak, Hizkuntza Minorizatuen Europako Karta... denak soberan ditu: *La propia demandada es consciente del obstáculo que para sus fines representa esto último y pretende salvarlo mediante los siguientes argumentos; el primero consiste en traer a colación Sentencias del TSJ de Cataluña y varias Ordenanzas de ayuntamientos catalanes y al respecto hemos de manifestar, en primer lugar, que ignoramos si las Ordenanzas han sido o no impugnadas, con lo que la situación varía, en segundo, que el hecho de que se hayan publicado no otorga a las que se puedan dictar en otros ayuntamientos la habilitación normativa de la que puedan adolecer, como hemos visto que es el caso y, en tercer lugar, las Sentencias de unos órganos jurisdiccionales, a salvo las de los Tribunales Constitucional y Supremo, no vinculan a los restantes y menos cuando la solución en uno y otro supuesto varía o puede variar tanto si se atiende a cómo se hayan planteado los procesos como a las diferentes normas con que en uno y otro se puede contar y que den lugar a supuestos diversos, unos con habilitación competencial y otros en los que no la haya.*

Hauek dira, ba, herri-administrazioetan euskararen normaltasuna bermatzeko ekimenek jasaten dituzten oztopoak eta mugak. Hau da, azkenik, egunero bizi behar ditugun segurtasun-falta juridikoa eta prekarietatea.

3. Espediente motak eta euskararen erabilera

Jarraian, hainbat irizpide eskainiko ditut, eguneroko espedienteak kudeatzeko baliagarriak izango direlakoan. Hala ere, ezin dugu ahaztu aurreko paragrafoetan azaldutako segurtasun eza, eta jasan behar ditugu erasoak gure ohiko jardueretan. Gure hizkuntza era naturalean tratatua eta maitatua izan beharko lukeen jardueretan.

Aldez aurretik, irizpide hauek ematerakoan ausardia puntu bat jarri dudala adierazi behar dut. Indarrean dauden legeen hitzez hitzeko testuetan, edo hainbat Auzi-Epaimahaiak emandako sententzietan oinarrituz gero, ezer gutxi aurrera genezake euskararen erabilera normalizatua sustatzeko, gaztelerak beti utziko duelako agerian bere nagusitasuna. Horretaz gain, erabiltzen ditugun betiko aitzakiak: *errazagoa da, denok ulertzen dugu, dena erdaraz idatzita dago, presaka nabil...* Hona hemen lan-tresna bat, zalantzarik betirikoa, eztabaidagarria, baino lan-tresna azken finean.



3.1. Alderdi baten eskaeraz hasitako espedienteak

Espediente hauek bi motatakoak izan daitezke: Interesatuentzako onurak sortzen dituzten espedienteak (dirulaguntzak orokorrean, proiektuen lehiaketak, bekak, eta, orokorrean udalen sustapen-ahalmenean oinarritzen direnak), eta gainontzeko espedienteak.

3.1.1. Interesatupei onurak sortzen dizkien espedienteak

- Espedientearen tramitazioa: euskaraz eman daiteke, beti ere apirilaren 15eko 86/97 Dekretuan xedaturikoa kontutan hartuz.
- Aparte hartu beharko lirateke gizarte izaerako laguntzak, duten konplexutasuna ikusita. Kasu hauetan, barruko dokumentazioa (txostenak, ofizioak, etab.) euskaraz egin ahal izango dira, eta itzuli beharko dira interesatuak hala eskatuz gero
- Iragarkiak: Elebitan emango dira
- Interesatuak aurkeztu beharreko dokumentazioa: Euskaraz edo elebitan
- Sustaturiko jarduera: Euskaraz edo elebitan
- Kasu hauetan, euskararen lehentasunezko irizpideak ezar daitezke, beti era justifikatuan.

3.1.2. Bestelakoak

- Espedientearen tramitazioa: euskaraz eman daiteke, baina administrazioarekin harremanetako hizkuntza aukeratzeko interesatuak duen eskubidea kontutan hartuta, gaztelaniaren erabilera eskatuz gero, espedientearen zati garrantzitsuenak (ebazpenak, jakinarazpenak, ...) elebitan osatuko dira, eta itzulpenek jatorrizko dokumentuen balio juridikoa izango dute. Barruko dokumentazioa (txostenak, ofizioak, etab.) euskaraz egin ahal izango dira, eta itzuli beharko dira interesatuak hala eskatuz gero.
- Iragarkiak: Elebitan emango dira
- Interesatuak aurkeztu beharreko dokumentazioa: Beraiek aukeraturiko hizkuntzan
- Kasu hauetan, euskara lehenesteko irizpideak ezar daitezke administrazioaren jardueran: formatu egokiak erabiliz, euskarazko hizkiak gaztelaniazkoak baino handiagoak eginez, etab.



3.2. Herri administrazioak

Hainbat kasutan, espedientearen sustatzailea ez da partikular bat, beste herri-administrazioa edo entitate publikoa baizik. Administrazio hori Euskadiko Autonomia Erkidegoan kokatuta baldin badago, espedientea euskaraz izapidetu daiteke, eta Administrazio horrek errespetatu beharko du udalaren erabakia. Sententzia ugari aipatu duten moduan, Euskararen normalizaziorako Legearen 8. artikulua ez da aplikagarria lurralde honetan kokaturiko herri-administrazioen kasuan, beraiek ez baitira partikularrak eta ez dute okupatzen zuzenbide administratiboan interesatuari dagokion tokia.

Hona hemen udaletako akten igorpenari buruz azkenetariko Sententzia, Donostiako Administrazioarekiko Auzialdiko Epailleak emandakoa:

SEXTO.- En conclusión hay que distinguir, ateniéndonos a la doctrina constitucional que:

1.- Las relaciones de los particulares con la Administración en los territorios dotados de un estatuto de cooficialidad lingüística: los interesados pueden utilizar cualquier lengua oficial con plena validez jurídica en las relaciones que mantengan con cualquier poder público radicado en dicho territorio, siendo el derecho de las personas al uso de una lengua oficial un derecho fundado en la Constitución y el respectivo Estatuto de Autonomía, y si no hay elección de lengua por el particular las notificaciones o acuerdos deben realizarse por la administración respectiva de forma bilingüe.



2.- Las relaciones interadministrativas, en las que prima la declaración de los efectos de validez y eficacia de cada una de las lenguas oficiales, porque en caso contrario significaría que la Administración respectiva desconoce la oficialidad de cada una de las lenguas, lo que les está proscrito en el País Vasco por imperativo de lo dispuesto en el art. 6 del EAPV, en relación con el 3.2 CE.

2.1.- La interpretación que sostiene la actora no es constitucionalmente adecuada, sin perjuicio, además, de que obligaría a la AGE a formular los correspondientes requerimientos al amparo de la LRBRL, en las dos lenguas oficiales.

2.3.- Por otra parte según lo dispuesto en el artículo 36.2 de la LPAC, que remite, por tanto al artículo 8.2 de la Ley de Normalización proclama y declara como objetivo primordial: el uso normal y la promoción del euskera. En consecuencia en la actual CAV la utilización de la lengua propia (lengua vasca, *lingua navarrorum*, euskera, vascuence etc.) es plenamente oficial junto con el castellano, por lo que tiene plenos efectos y validez jurídica en las relaciones interadministrativas.

2.4.- La alegación de la representación procesal de la AGE que viene a sostener que única y exclusivamente goza de validez y de eficacia si se utiliza conjuntamente con el castellano, sería, como ha señalado la doctrina, “subordinarla a un lugar que en ningún caso puede derivarse de una interpretación de la *voluntas legis* emanada del Parlamento Vasco, y de la doctrina de la oficialidad de las lenguas elaborada por el TC.



SÉPTIMO.- La AGE por tanto es un poder público y en consecuencia no es titular de derecho subjetivo alguno como el invocado, que reserva el bloque constitucional a las relaciones entre los particulares y la Administración Pública correspondiente.

1.- El Acuerdo del Ayuntamiento demandado no ha de traducirse tampoco, dado que no debe “surtir efecto fuera del territorio de la CAV”, por lo que no es de aplicación lo dispuesto en el artículo 36.3 de la LPAC, salvo que implícitamente la propia AGE considere que la CAV no sea también Estado.

2.- No parece, además, razonable, que *transcurridos 35 años desde la aprobación del Estatuto de Gernika y 32 años de la Ley de Normalización del Euskera, un poder público de la naturaleza y los medios materiales y personales de la Administración General del Estado no puede alegar la ineficacia de un acto de otro poder público sito en la CAPV por el hecho de que haya sido redactado en euskera, pues en ese territorio la Administración General del Estado está obligada a recibir, tramitar y responder en euskera las solicitudes que los ciudadanos de dicha Comunidad que se presenten en esa lengua (art. 6 LNE).*

3.3. Epaitegiak

Kasu berezi bat Epaitegiarena da: ohiko eran, udalak hartutako ebazpen baten aurka helegite bat tartekatzen denean epaitegi baten aurrean, udalak izapideturiko espedientea eskatzerakoan, euskaraz dauden zatiak **gatzelaniara itzultzea exijitzen zaio** (ez alderantziz, gazteleraz dagoena euskarara itzultzea). Era honetan:

- Exijentzia diskriminatzailea da euskararekiko, soilik euskaraz dauden zatien itzulpena behartzen delako.
- Udalen lan-karga areagotzen du.
- Kostu ekonomiko gehigarria suposatzen du udalentzat.
- Baino arazo nagusia honako hau da: praktika honek euskararen erabilera normalizatua ekiditen duela. Udaletan izapidetzen ditugun espedienteen kopuru garrantzitsu batek aukera handia du epaitegietan amaitzeko: ondare-erantzukizunezko espedienteak, hirigintza-disziplinakoak, kontratazioak.... Zer egin behar dugu, badaezpada ere espediente guztiak elebitan izapidetu. Eta zergatik ez gatzelaniaz bakarrik, euskararen erabilera ez bada onartzen epaitegietan?

Txosten hau idazten duenaren iritziz, exigentzia horrek Autonomia Estatutua, Euskararen Normalizaziorako Legea, eta administrazio orokorraren prozedura erkidea eta udalen prozedura arautzen dituzten xedapenak urratzen ditu, lehenago aipatu dudanaren arabera. Euskadiko Autonomia Erkidegoaren esparruan kokaturiko Auzitegietako organoak ez dira subjektu partikularrak, ez dira interesatuak prozedura batean, botere publikoak dira, eta euskararen ofizialtasuna errespetatu behar dute. Beraz, udal batek euskaraz izapideturiko espediente bat igortzen badiu, legez kanpo dago gatzelaniazko itzulpena egitea.



Organo horrek ez badu euskara ezagutzen, horren ardura duen administrazioak jarri behar ditu beharrezkoak diren baliabideak euskarazko eta erdarazko itzulpenak gauza daitezen. Eta administrazio hori Eusko Jaurlaritza da. Ezin zaigu udaloi egotzi administrazio autonomikoaren ardura eta erantzukizuna den arazoa, zera, justizia-administrazioari beharrezkoak diren baliabideak ematea, hizkuntza ofizialen erabilera bermatzeko epaitegien funtzionamenduan.

Egoera oso larria da arlo honetan, eta Udal legeak, argi eta garbi xedatu beharko luke udalon ardura ez dela beste administrazioentzako edo botere publikoentzako diren espedienteen itzulpena gauzatzea, espedientea ofiziala den hizkuntza batean baldin badago.

3.4. Notario eta erregistradoreak

Kasu honetan, azalpena berdina da. *Dirección General de Registros y del Notariado* delakoak 1980an aitortu zuen hizkuntza ofizialen errespetua. Ondorio moduan, aipatu Zuzendaritzak Notariok eta Erregistradoreek ezin zutela ofiziala den hizkuntza batean idatzitako dokumentu baten itzulpena eskatu, eta itzulpen-lanak, beharrezkoak baldin baziren, Notario edo Erregistradorearen ardurakoak zirela xedatu zuen. Horretaz gain, Notarioen Erregelamendua-ren 149. artikulua honela dio: *Los instrumentos públicos se redactarán en el idioma oficial del lugar del otorgamiento que los otorgantes hayan convenido. En caso de discrepancia entre los otorgantes respecto de la utilización de una sola de las lenguas oficiales el instrumento público deberá redactarse en las lenguas oficiales existentes. Las copias se expedirán en el idioma oficial del lugar pedido por el solicitante.*

Kasu honetan, partikularren eskubidea bermatu nahi da. Baino, tamalez, Notaritzetatik behin eta berriro eskatzen zaizkigu euskaraz izapideturiko espedienteetan izandako ebazpenak erdaraz ziurtatzea. Erregistroen kasua berdina da.

Udal legeak ere, arlo honetan zehaztaperen gehiago egin beharko luke, Notario eta Erregistradoreekin harremanetan edozein hizkuntza ofizialaren erabilera onartzekoa dela xedatuz.

3.5. Ofiziozko espedienteak

Hauek dira administrazioak bere kabuz hasitako eta izapideturiko espedienteak. Hemen hainbat iradokizun eta irizpide azalduko ditut.

3.5.1. Hartzailea izaera pribatuko pertsona denean

- Kasu honetan, espedientearen tramitazioa euskaraz hasi daiteke. Interesatuak bestelakoa eskatzen badu, elebidunez, aurretik aipatu ditudan irizpideak jarraituz.
- Iragarkiak: Elebitan emango dira



- Interesatuak aurkeztu beharreko dokumentazioa: Aukeratzten duten hizkuntzan
- Sustaturiko jarduera: Euskaraz edo elebitan
- Euskarara lehenesteko irizpideak ezar daitezke ere.

Hala ere, espediente hauen artean, udalaren kontratazioak arautzen dituztenek izaera berezia dute. Luze eta zabal hitz egin daiteke, baina hona hemen laburpen bat:

- Jardunbidearen arabera, kontratu txikietan eta publizitaterik gabeko negoziatuetan, ahal denean, euskaraz jarduteko gaitasuna duten profesional eta enprekin harremanetan sartzten bagara, espediente osoa euskaraz egin ahal izango dugu. Publizitatea duten prozeduren kasuan, baldintza pleguak (teknikoa zein administratiboa), iragarkiak, eta kontratazio-organoaren ebazpenak elebitan egon beharko dute, helegiteak ekiditearren. Gainontzeko dokumentazioa euskara hutsean egon daiteke, eta itzuli egingo da interesatu batek eskatzen duenean.
- Prestazioen arabera, hainbat udaletan aztertzen ari dira kontratazioko irizpideak. Kasuz kasu, euskara teknikariak aztertuko ditu kontratazio-espedienteak, eta hizkuntza irizpideak txertatuko ditu baldintza pleguetan, euskararen erabilera normalizatua bermatzearren:
 - Obretako proiektuak euskarazkoak edo elebidunak izatea.
 - Obretako seinalizazioari buruzko irizpideak jartzea
 - Zerbitzuen kasuan, euskaraz emateko gaitasuna egiaztatzea, kaudimenaren barruan.
 - Hornikuntzan, euskararen erabilera bermatzea: programa informatikoak, ekipoak, etab.
 - Zerbitzu publikoen kudeaketan pertsonalaren gaitasuna egiaztatzea
 - ...

Era guztietan, udal batzuk onarturiko Ordenantzen baliogabetze-jardunbideak ikusi ondoren, eta prudentzia osoarekin, udal legeak, udalek beraien kontratazioetan hizkuntza ofizialen erabilera bermatzeko duten eskumena aitortu beharko luke.

3.5.2. Hartzailera beste administrazio publikoa denean

3.2. puntuan adierazitakoa balio du kasu honetan. Administrazio Publikoa Autonomia Erkidegoaren eremuan kokatzen bada, espediente euskara hutsez tramitatu daiteke, subjektu partikularrei buruz eta iragarkiei buruz aipaturikoa kontutan hartuz.



3.5.3. Hartzailleak zehaztugabeko subjektuak direnean

Badira espediente batzuk zehaztu gabeko subjektuei zuzentzen zaizkienak: xedapen orokorrak, ordenantzak, plangintza urbanistikoak, etab. Ohiko eran, espediente hauek informazio publikoko izapidea dute, eta arrazoi honengatik, publikoan jartzen den dokumentazioa elebitan egon behar du. Gainontzeko dokumentazioa (teknikarien txostenak eta gainontzeko barruko dokumentazioa) euskara hutsez baldin badago, itzuli egingo da interesatuek hala eskatuta.

3.5.4. Hartzaillea udala bera edo udaleko pertsonala denean

Hemen bi motatako subjektuak bereizi behar dira:

1º. Espedientearekin interesa dutenak korporazioko kideak direnean: pleno eta Batzorde Informatiboetako dokumentazioa, aktak, mozioak, Tokiko Gobernu batzarraren dokumentazioa, etab. Txosten honen 2. puntuan adierazitakoaren arabera, espedienteak euskaraz izapidetu ahal izango dira, baina korporazioko kideek eskubidea izango dute haien itzulpenak eskuratzeko. Kasu askotan, nagusiki euskaldunak diren komunitateetan, nahikoa da euskaraz ez dakien zinegotzi bat egotea itzulpenen makinaria abian jartzeko. Proporzio eza izugarria da kasu horietan, eta horri aurre egiteko neurriak hartzea gomendatzen da, ahal izanez gero.

Lege-irizpideetara soilik joanez gero, ez dago hori ekiditerik.

2º. Espedientearekin interesa dutenak udaleko langileak direnean (pertsonaleko espedienteak: baimenak, zigor-espedienteak, etab.). Kasu honetan, hainbat Sententzietan printzipio bat ezarri da: langileak bere lana gaztelania ez den beste hizkuntza ofizialean betetzeko gaitasuna badu, (eta gure kasuan dagokion lanpostuan hizkuntza eskakizuna ezarria baldin badago derrigortasun data amaituta) ezin duela exijitu dokumentazioaren itzulpena egitea. Sententzia hauek Katalunian eman dira, eta beste kasuetan bezala, ez dago ziurtaturik Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Auzitegien iritzia berdina izan zitekeelarik.

3.6. Lagungarriak diren/izan daitezkeen neurriak

Hona hemen, proposamen moduan, udaletan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuan lagungarriak diren edo izan daitezkeen neurriak:

- Espedienteak antolatu eta sistematizatzea: espediente bakoitzaren pausoak zehaztu, izapidetan parte hartzen duten langileak identifikatuz, eta aplikatu daitezkeen irizpideak aztertu.



- Kalitatezko ereduak sortzea udal espedienteetan, kasu bakoitzean eredu horien hainbat eduki aldatu beharko dela kontutan hartuz. Hemen, aholkularitza-organo eraginkor publiko baten falta sentitzen da, udal espedienteen eredu egokiak sortzen dituenak. Ez al da hori Diputazioen eskumena?
- Erabiltzen diren araudien base bat osatzea, egunean dagoena: Dekretuak, Legeak, Errege-Dekretu Legegileak..., Aurkitu daitezkeenak oso sinpleak dira, eta kasu gehienetan araudiak zaharkituta daude.
- Kalitatezko itzulpenak egiteko gaitasuna duten profesionalen osaturiko zerbitzu publikoa indartzea.
- Baliabideak, baliabideak, baliabideak.

4. Udalen jarduera eta udal legearen proiektua

Txostenaren amaieran hainbat proposamen luzatuko ditut Udal Legearen Proiektuaren inguruan, berandu bada ere, aurreko puntuetan aipatutakoaz gain:

- Legearen 4. artikulua Toki-erakunde zuzendaritza politikoaren eta gobernu-ekintzaren printzipioak xedatzen ditu. Ez al du merezi euskararen normalizazioak toki bat printzipioen artean?
- 6.2 artikuluan, toki erakundeetako organoen deialdiak, gai-zerrendak, aktak, irizpenak, eta bestelako dokumentazioa arautzen duenean, euskaraz ez dakitenean kideen eskubideak arautzerakoan, ez du xedatzen nola gauza daitezkeen eskubide horiek. Gehiago zehaztu beharko luke eskubide horiek egikaritzea, adibidez, itzulpenen eskaeren bidez.
- Aurreko ataletan adierazi den moduan, Justizia Administrazioarekin eta Notario zein Erregistadorekin harremanetan euskara erabiltzeko eskubidea xedatu beharko litzateke. Halaber, udalaren dokumentazioaren itzulpena beharko balitz, kasu horietan itzulpenaren ardura ez dela udalena izango, itzulpena eskatzen duenarena baizik.
- Udalak sustatzen dituen kontratazio espedienteetan euskararen erabilera normalizatzeko xedea duten irizpideak arautzeko ahalmena onartu behar zaie udalei.
- 7.7. artikuluan, “Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako administrazio publikoekin” esan beharrean, “Euskal Autonomia Erkidegoan kokaturiko gainerako administrazio publikoekin” adierazi beharko luke.
- Euskararen erabileraren normalizaziorako udalek behar dituzten eta gainontzeko administrazioen eskuduntzakoak diren baliabideak hornitzeko betebeharra (pertsonalak, materialak, 3.6 puntuan adierazitakoaren arabera) xedatu beharko luke lege berriak.

udal**top**

UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK

